

Izarrak

Roberto Frabettirena



**PARAISO ANTZERKIAK EGINDAKO
GIDA DIDAKTIKOA**

AURKEZPENA

PARAISO ANTZERKIAK Haur Hezkuntzako eta Lehen Mailako Irakaskuntzako Lehen Zikloko ikasleei bereziki zuzendutako ikuskizun berri bat sortu du. **IZARRAK** ikuskizuna egitean ikusle txikienen beharrei egokitzen zaion mintzaira poetikoa sortu nahi izan da. Halaber, ume txikienek alderdi dramatiko desberdinekin ezartzen dituzten loturei buruz ikesten segitu du.

AURREKO IKARDUERAK

1. "ETA ANTZERKIA JAIO ZEN" IPUINA.

Zuen neska-mutilei antzerkiaren jatorriari buruzko istorio mitikoa kontatzea iradokitzen dizuegu. "IZARRAK" ikuskizunaren antzezpenera joateko gonbidapen berezia da.

"ETA ANTZERKIA JAIO ZEN"

Behin batean, orain dela urteak eta urteak hiri handi bat zen.

Hiri honetan, eguzkia, ilargia eta izarrak ere bizi ziren.

Eguzkia egunez irten, hiria argitu eta bere beroaz babesten zuen. Gaua heltzean eguzkia, nekaturik, lotara zihoan.. Orduantxe ilargiak eta izarrek zaintzen zuten hiria.

Egun batean ordea, eguzkiak erabaki zuen etxeen artean ezkutatzea. Horrela ikusi zuen ilargiak eta izarrek zer egiten zuten gauetan. Bere gordelekuetik izarrak ikusi zituen jolasten:"Ezetz harrapatu". Eta gero ilargia dantzan.

Hain ederra zen ilargia, non eguzkia maitemindu egin zen berarekin. Beraz, hurbildu zitzaion eta bere amodioa aitortu zion.

Ilargiak entzungor egin eta ezkutatu egin zen.

Behin eta berriro gertatu zen esandakoa.

Eguzkia oso penaturik zegoen, gero eta tristeago.Egun batean erabaki zuen kobazulo batean bere amodioa ezkutatzea eta berriro ez irtetea.

Orduan, hiria ilunpean gelditu zen. Horrezkero ez zeuden ez eguna ezta gaua ere. Den dena iluntasuna....Isiltasunak menperatzen zuen.

Izarrek eta ilargiak bilera egin zuten arazoari konponbidea emateko asmoz. Baina, zer egin.

Askenik, ilargiari zerbait bururatu zitzaion. Zilarrezko soinekoa jantzi eta eguzkia ezkutatuta zegoen kobazulo aurrean kanta eta dantza egingo zuen.

Izarrek orkestra bat osatu eta festarako musika joko zuten.

Eta antzezlanari hasi zen.

Eskenak eguzkia erakarri zuen eta kuriositatez burua atera zuen. Hau ikuskizuna!!! Zer polita!!! pentsatu zuen.

Eta argiak txir-txir egin zuen berriro hirian.

Iluntasuna desagertu zenean ume baten negarra entzun zen. Ume jaio berria. Eguzkiak kapela bat oparitu zion. Ilargiak bere aurpegi zuria. Eta izarrek ehundu zioten argi eta koloredun jantzia.

Baina umeak ez zuen izenik, beraz erabaki zuten ANTZERKI deitzea.

Hauxe antzerkia duzue eta bere lagunak, eguzkia, ilargia, izarrak,...kontatutako istorio pila bat daki. Horregatik antzezlan bat ikustera joaten garenean, istorio ederrak kontatzen dizkigu.

Eta hau hola ez bazan, sar dezatela kalabazan, baina oraingoz ez da aterako inongo plazan.

Denok aukera edukiko dugulako antzerkira joateko. Hantxe berriro kontatuko digute izarrei buruzko beste ipuin bat.

Zuen zain nago, ez egin kale.

2. OINARRIZKO HIZTEGIA.

Ikuskizunari forma ematen dion lengoaia poetikoa eta ume batzuek euskarazko testua ulertzeko agertzen dituzten zailtasunak gogoan hartuz, ikuskizuna hobeto ulertzen eta gehiago gozatzeko lagun dezaketen zenbait hitz gako aldeztatik klasean lantzea sujeritzen dizuegu.

CASTELLANO

Luna
Luna Llena
Media Luna
Luz
Sombra
Noche
Día
Sol
Estrellas
Cielo (Claro Oscuro)
Agua (Lagos, Mar, Lluvia, Ríos)
Fuego (Calor, Luz, Llama)
Tierra
Colores (Verde, rojo, azul, blanco...)
Aire (Vuelo, Alas, Nube)
Sueños

EUSKERA

Ilargia
Ilargi Betea
Ilargi Erdizka
Argia
Itzala
Gaua
Eguna
Eguzkia
Izarrek
Zerua (Argi, Ilun)
Ura (Lakua, Itsasoa, Euria, Iturria)
Sua (Beroa, Argia)
Lurra
Koloreak (Berdea, gorria, urdina, zuria...)
Haizea (Hegaz Egin, Hegoak Hodeia)
Ametsak

“IZARRAK” IKUSKIZUNA

“Las estrellas salen de noche cuando duermen los niños. Se quedan quietas en el cielo y les miran mientras duermen.

Todos los niños tienen su estrella... Si atiendes, cierras los ojos y abres una mano, la sentirás pasar... Sentirás que te acaricia y te deja un regalo”.

El cuento se desarrolla utilizando pocas palabras con una leve música de carillón, en un ambiente escenográfico constituido por un pequeño planetario de luz y cuatro cunas, en las que duermen cuatro recién nacidos/as.

La actriz muestra a los niños/as que duermen y a los presentes, los dones que han dejado cuatro estrellas. Estas traen, el agua de los ríos, de los lagos, de beber; traen el fuego que ilumina y calienta; traen la tierra con sus colores y su peso y el aire con su ligereza y vitalidad.

El agua, el fuego, la tierra y el aire son los elementos de la vida, y las estrellas nos regalan un pequeño mundo.



OSTEKO IHARDUERAK

1. ZERUA BEGIRA

Interesgarria da haurrei gauez zerua begiratzera gonbidatzea. Ohartuko dira zerua izarrez josia agertzen den gau argiak daudela. Eta badaudela, halaber, gau hodeitsuak ere, zeinetan ez baitugu izarrak ikusterik, hauek bere argitasun osoz bertan dirauten arren.

Izar handiak eta izar txikiak ikusiko dituzte, beste izar batzuetatik oso gertu bizi diren izarrak, batzuetan marrazki zoragarriak eratuz, eta itxuraz bakarrik bizi diren izarrak.

Interesgarria izan liteke zeruko atlas bat edo planetarium bat erabiltzea ikerraldia iradokigarriagoa egiteko.

Eta gero ikasgelako sabaia zeru bilakatzea proposatzen dizuegu, non ikastaldeko ume bakoitzak bere izarra koka baitezake.

2. IZARREI BURZKO BITXIKERIAK


Gure ikusle txikiei kontatu eta irakasteko.

▪ Zerez eginda daude izarrak?

Zeruan dauden izarrak ez daude ez ogiz ez txokolatego eginda, baizik eta argia eta kolorea fabrikatzeko, izarrek nahasten dituzten gas edo substantzia batzuek.

▪ Berdinak al dira izar guztiak?

Berdinak al dira neska-mutil guztiak? Ez, ezta? Bada, izarrak ere desberdinak dira. Bakoitza berezi da, bat txikia delako, beste bat biziro dir-dir egiten duelako, beste batzuk olgeta-zaleak direlako... Batzuk bakarrik daude eta beste batzuk taldetan elkartu egiten dira...



- **Zergatik izarniatzen dute izarrek?**

Izarrak sortzen duten argi eta kolorea euren izpi-bezoez zerurantz bidaltzera jolasten ematen dute denbora. Beti daude piztuta. Baina batzuetan beraiei begira geratzen garenean amatuta egiten direla ematen du. Baina ez dira itzaltzen, bestela izarrak izateari utziko liokete eta! Argi-izpi berriak hartzen ari dira zerurantz jaurtikitzeko.

- **Izarrek iza-itxura dute?**

Seguruenik Gabonetan erpin dotoreetako izar ederrak marraztu eta ebakitzen ditugu Jaiotza, Arbola, Ikasgela... apaintzeko. Baina..., zeruan zekar bidaiatu eta izar bat bisitatu ahal izango bagenu, forma hori izango ote luke? Bada, ez. Izarrak, egia esan, biribilak dira, politak bezala. Gertatzen dena da bizitza osoa argi-izpiak igortzen ematen dutenez, erpin zorrotzekin marratzen ditugula.

3. IZAR BATEN BIZITZA

Izarra, jaio, denbora luzean zehar bizi eta azkenean hiltzen den izako biziduna dugu.

Izarrak hasieran haurtxoak bezalakoak dira. Hauek ez dakite ez hitz egiten ez ibiltzen... Eta izarrek ez dakite ez argia ez kolorea ematen. Pixkanaka-pixkanaka izarrak izaten ikasten dute, biribil-biribilak egiten dira eta argia eta kolorea fabrikatzen ikasten dute, umeez marrazten, irakurtzen, ibiltzen... ikasten duten bezalaxe.

Izarrak asko dakitenean, oso argi distiratsu eta horia sortzen dute. Horrela ematen dute urte asko eta asko, izpiak eta izpiak jaurtiz...

Baina halako egun batean, izarra hoztu egiten da, bere argia iraungitzen hasten da, eta izarrak hasten dira loditzen harik eta Gigante Gorri bihurtu arte. Bere argia, orain gorri kolorekoa, honez gero ez da hain distiratsua.

Eta denbora pasa ahala bere argitasuna galduz doa, bai eta bere forma biribila, berriro zimurtu eta izarra izaten ahaztu arte. Gero Nano Zuriak deritzen zatitxotan puskatu eta desagertuko da.

Baina ez egon triste, izarrak ez baitira inoiz desagertzen, bat jaiotzen denean beste bat hiltzen da.

Eta horrela ematen dute bizitza. Izar bat hiltzean, puskatzean sortutako zatitxoak uzten ditu zeruan, denboraren poderioz argi propioarekin diz-diz egingo duten izar berri bilakatuko direnak.

4. URA, LURRA AIREA ETA SUA GORDETZEN DUTEN KUTXATXOAK

Ikuskizunean bezala, izarrek opariak gordetzen dituzten lau kutxa dakarzkiete umeei. Opari hauek Ura, Lurra, Airea eta Sua dira. Haurrei beren gorputzekin itxi eta irekitzen diren kutxak egitea proposatzen diegu. Irekitzean umeak kutxa barruan gadoen oparia (Ur, Lur, Aire eta Su) bihurtzen dira eta irakasleak egiten dituen proposamenekin jolastuko dira.

Kutxatxoa ixten da.

Kutxatxoa irekitzen da eta Ura agertzen da, orain denok... **U.R.A.** gara.

- Plausta eta plausta erori eta dena (zorua, aulkiak, kristalak...) bustitzen duen euria gara.
- Nekaturik bilbu eta laku biribil bat sortu eta geldi eta isilik gelditzen den ura gara.
- Ibaia izeneko bide bat sortu eta etengabe korrika doan ura gara.
- Itsasora heldu..., uhinak eratu..., handi-handi egin... eta batzuetan lasai gelditzen den ura gara.

Kutxatxoa ixten da.

Kutxatxoa irekitzen da eta Lurra agertzen da, orain **L.U.R.R.E.K.O.** koloreak gara denok.

(Une honetan irakasleak lurreko koloreetako zetzko paperak kokatzen ditu haurren gainean. Bat partehartzaile bakoitzeko.)

- Zein Koloretakoa naiz? Zuria gatza bezala edo urdina topazioa eta itsasoa bezala? Agian ... gorria... edo berdea... edo horia... naiz? Zein koloretakoa naiz?
- Nire gorputza kolorez janzten da eta ni bezalako beste batzuen bila abiatzen naiz. Elkarrekin kolorezko orban bat egiten dugu. Hau batzuetan txikia da, beste batzuetan zabaldu egiten da. Espazioa betez.
- Lurreko kolorez elkartzen dira eta bi koloreko orbanak eratzen dituzte (gorria urdinarekin..., berdea zuriarekin..., horia urdinarekin...). Baita hiru kolorekoak ere kolore guztiak elkarrekin dantzatzen direneko orban handi bat osatu arte.

Kutxatxoa ixten da.

Kutxatxoa irekitzen da eta Sua agertzen da. Orain denok... **S.U.A.** gara.

- Su txikitxoa da gutako bakoitza.
- Norbaitek gure gainean putz egiten badu geure burua babesten saiatzen gara.
- Eta, sua handiago egiten badugu? Elkar ditzagun bi su, batera diz-diz egiten duten bi su-meta.
- Argi gehiago eman nahi badiogu zerbait, eskolari kasu, su-meta handiagoa behar dugu. Elkar ditzagun 3 su!

- Eta San Juaneko sutzarra egin nahi badugu desira onak eskatzeko? Bil ditzagun su guztiak eta egin dezagun argi eta kolorea ematen duen su handi bat. Su bizia erraz amatazen ez diren horietakoa.

Kutxatxoa itxi da.

Kutxatxoa irekitzen da eta Aireak agertzen da. Orain denok **A.I.R.E.A.** gara.

- Haizeak batzuetan emekiro jotzen du, aurkitzen dituen gauza guztiak ferekatuz.
- Beste batzuetan sehaska-kantak xuxurlatzen ditu entzuten dionaren belarrira.
- Zenbaitetan presaka dabil eta arineketan pasatzen da teilatuen gainetik, pozik txistu eginez.
- Baina batzuetan haserretu ere haserretzen da eta ufa egiten du bizi herri eta hiri gainean. Ufa eta ufa egiten du... harik eta dena berekin eraman arte. Gero atsedean hartzen du.

